

EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

UNIBERTSITATE KOMUNITATEAREN MUGIKORTASUNARI BURUZKO INKESTA 2025

EHU

EDUKIA

1 SARRERA	5
2 DATU OROKORRAK	8
3 PARTE HARTZAILEEN PROFILA	10
4 OHIKO GARRAIOBIDEA	14
5 MUGIKORTASUNA ASTEBURUETAN EDO OPORRETAN	17
6 TXIRRINDULARIEN MUGIKORTASUNAREN BALORAZIOA	20
7 OINEZKOEN MUGIKORTASUNAREN BALORAZIOA	21
8 GARRAIO PUBLIKOAREN BALORAZIOA	22
9 GARRAIO PRIBATUA AUKERATZEKO ARRAZOIAK	23
10 ZER ALDAKETA GERTATU BEHARKO LITZATEKE CAMPUSERA JOA- TEKO GARRAIOBIDE ARTIBOA ETA/EDO PUBLIKOA AUKERATZEKO?	24
LEIOAKO CAMPUSA	24
BILBON dauden ikastegiak	25
ARABAKO CAMPUSA	26
GIPUZKOAKO CAMPUSA	28
I. ERANSKINA	31

UPV/EHUko unibertsitate-komunitatearen mugikortasunari buruzko inkesta. Klimaren aldeko ekintza

Encuesta de movilidad de la comunidad universitaria UPV/EHU. Acción por el clima.

1 SARRERA

Gaur egungo krisi klimatikoan, **karbono aztarna** neurtzea eta murriztea lehentasun bihurtu da mundu osoko goi mailako hezkuntza arloko erakundeentzat. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU ez da salbuespena; eta, jasangarritasunarekin duen konpromisoaren barruan, ingurumen inpaktua aztertzeari ekin dio, inpaktu hori murrizteko jarduera ildoak zehazteko.

Horrekin lotuta, UPV/EHUK bat egin du Klima Larrialdiaren Egoera Deklaratzeko Gutunarekin¹. Ekimen hori NBEk eta Erresuma Batuko Unibertsitate eta Zentroen Ingurumen Elkarteak (**EAUC**) sustatzen dute elkarlanean. Horrez gain, UPV/EHUK bat egin du **Global Universities and Colleges Climate Letter** ekimenarekin, **Race Zero** kanpaina parte hartzeko prest dauden eta klima-aldaetaren aurka borroka egiteko konpromisoa hartu duten mundu osoko ikastetxeentzako ibilbide ofizialarekin.

UPV/EHU baitan ingurumen inpaktua gehien eragiten duen ingurumen kategorietako bat **unibertsitate komunitatearen mugikortasuna** da, garraioak eragiten baititu berotegi efektuko gasen (BEG) emisio gehienak. Unibertsitate baten kasuan, inpaktua handia da, egunero Unibertsitateko Campusera eta campusetik joan etorriak egiten dituzten pertsonen kontzentrazio handia dela eta.

Testuinguru horretan, ikasleen, irakasle-ikertzaileen (IRI) eta teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetaiko langileen (TEKAZEL) garraio ohiturei eta horiek gure unibertsitateko karbono aztarnan duten eraginari buruzko datu zehatzak eta eguneratuak biltzeko, UPV/EHUKo Jasangarritasun Zuzendaritzak, hiru campusetako errektoreordetzekin batera, **Mugikortasunari buruzko inkesta** egin zuen 2024ko otsailaren 24an. Inkesta onlineko formatuan egin zen eta unibertsitateko komunitate osoari zuzenduta egon zen. Erantzun itxiko galderak (balorazio eskala) eta erantzun irekiko galderak (**inkesta eredua – 1. eranskina**) jaso zituen. Inkesta horren bidez, gure unibertsitate komunitatea osatzen duten pertsonen joan-etorrietarako moduen diagnostikoa egin nahi da, zein diren gehien erabiltzen diren garraiobideak, zein diren mugikortasun aukeren atzean dauden motibazioak, garraio publikoko zerbitzuekiko gogobetetasuna eta mugikortasun ez motordunerako (eta beraz, jasangarriagorako), hautematen diren oztopoak.

Inkesta honetan jasotako datuak UPV/EHUKo unibertsitate komunitatea osatzen duten pertsona guztien % 7,1ri dagozkie: ikasleek, IRIak eta TEKAZELe biltzen dituzten 42.136 pertsonetatik (2022/2023 ikasturteko datua), **2.985 erantzun** lortu dira guztira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Campus bakoitzeko unibertsitate komunitatearen erantzunaren ehunekoa unibertsitate osoaren datu orokorraren antzekoa da; hau da, Campus horretan ikasten edo lan egiten duten pertsonen % 7k erantzun diote inkestari lurralde bakoitzean.

1 Klima Larrialdiaren Egoera Deklaratzeko Gutuna: <https://www.educationracetozero.org/home>

Inkestan lortutako emaitzek UPV/EHUko unibertsitate komunitate osoaren mugikortasun ohi-turen ikuspegi zehatza ematen dute.

Emaitza horietan oinarrituta, UPV/EHUko campusetako mugikortasunaren eta ezaugarri bere-zien arloko behar espezifikoaren azterketa eta interpretazioa egin ahal izan da.

Lurralde bakoitzeko errealitateak eta UPV/EHUko ikastegiak campusetan banatzeak testuingu-ru fisikoaren eta biztanleriaren deskribapen laburra egitera bultzatzen gaitu, campus bakoitze-rako sarbidea baloratzeko:

BIZKAIKO CAMPUSA

Campuserako sarbidea baloratzeko garaian, banaketa hau aipatu behar da:

- **Leioako Campusean** dauden ikastegiak:
- **Bilbon** dauden ikastegiak:
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaskuntza unitateak **Gurutzeta eta Galdakaon** daude.

Biztanleriari dagokionez, Bizkaiaren kasuan, Bilbon eta haren konurbazioan kontzentratzen da biztanleriaren zati handiena (Bizkaiko 1.160.000 biztanle ingurutik, % 75 inguru, 871.500 biztanle, Bilbon eta haren hiri ingurunean bizi dira, eta gainerakoa eskualde guztietan banatuta daude). Ondorioz, hori guztia kontuan hartu behar da biztanleria, azpiegitura eta baliabide erabilgarriei dagokienez unibertsitateko mugikortasunaren arloan dituzten beharrak eta ezaugarriak azter-tzeko garaian.

ARABAKO CAMPUSA

Arabako Campuseko ikastegi eta zentro guztiak Gasteizen daude:

- Campuseko ikastegi eta eraikin ia guztiak **Renferen geltokitik gertu dagoen eremuan mul-tzokatuta** daude.
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaskuntza unitateak **Txagorritxuko** Ospitalearen ondoan daude.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Kirolaren Atala **Mendizorrotzako** kirol eremuan kokatuta dago.

Biztanleriari dagokionez:

Gasteizek Arabako biztanleriaren ia % 76 biltzen du; izan ere, 340.000 biztanle ingurutik 258.000 hiriburuan bizi dira.

Aiarako Kuadrillako herrietan 35.000 pertsona inguru bizi dira (lurraldeko biztanleriaren % 10), eta geografikoki Bilboko konurbaziotik hurbilago daude.

Gainerako biztanleak lurraldeko gainerako koadriletan sakabanatuta bizi dira (47.000 biztanle inguru)

Biztanleriaren, azpiegituren eta eskura dauden baliabideen kontzentrazio hori kontuan hartzea funtsezkoa da unibertsitateko mugikortasunaren beharrei eta ezaugarriei behar bezala heltzeko.

GIPUZKOAKO CAMPUSA

Gipuzkoako Campuserako sarbidea baloratzeko garaian, banaketa hau aipatu behar da:

- Ikastegi eta zerbitzu gehienak Donostiako **Ibaeta** eremuan kokatuta daude:
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, **ospitale eremuan** dagoena.
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren egoitza, **Eibarren**.

Gipuzkoako biztanleria oso banatuta dago: 730.000 biztanle inguru ditu, eta % 45 inguru (330.000) Donostialdean bizi da, eta gainerakoa lurraldeko eskualde guztietan banatuta dago.

2 DATU OROKORRAK

2022/2023 ikasturteko erreferentziako datuen arabera, UPV/EHUko unibertsitate komunitatea, ikasleek, IRI eta TELAZELEk osatua, **42.026 pertsonak** biltzen dute, eta horietatik 2985 lagunek erantzun diote mugikortasunari buruzko inkestari; hau da, campus horretako unibertsitate komunitate osoaren % 7,1ek (1. taula).

1. taula. **UPV/EHUko pertsona kopurua, kolektibo bakoitzeko**

COLECTIVO	Guztira, kolektibo bakoitzean*	Jasotako erantzunak (kopurua)	Erantzunen %
Ikasleria	34.521	1.973	5,71
IIP / IRI	5.693	669	11,75
TEKAZEL	1.812	343	18,92
* 2022/2023 ikasturteko datuak	42.026	2.985	7,10

Erantzunen ehunekorik handiena TEKAZELEk osatzen duen gutxiengo kolektiboan dago (kolektibo horren % 18,92k erantzun du inkesta). Ikasleen artean (gehiengoa duen kolektiboan), berriz, erantzunen % 5,71 baino ez dira jaso. IRIaren % 11,75ek erantzun dio inkestari.

UPV/EHUko ikasleei dagokienez, hurrengo taulak graduiko ikasketetan matrikulatuta daudenen **jatorrizko lurraldea** erakusten du, **campus bakoitzaren arabera**:


2. taula. **UPV/EHUko graduiko ikasleen bizileku lurraldea**
(Iturria: ARTUS)

BIZKAIKO Campuseko ikasleen BIZILEKU LURRALDEA		
	Matrikulatutako ikasle kopurua*	%
Bizkaia	13.262	68,36
Gipuzkoa	2.322	11,97
Araba	1.483	7,64
Beste probintzia batzuk	2.331	12,01
	19.398	% 100
GIPUZKOAKO Campuseko ikasleen BIZILEKU LURRALDEA		
	Matrikulatutako ikasle kopurua*	%
Bizkaia	1.531	16,14
Gipuzkoa	6.454	68,06
Araba	557	5,87
Nafarroa	521	5,49
Beste probintzia batzuk	419	4,41
	9.482	% 100
ARABAKO campuseko ikasleen BIZILEKU LURRALDEA		
	Matrikulatutako ikasle kopurua*	%
Bizkaia	2.455	33,03
Gipuzkoa	1.797	24,18
Araba	2.195	29,53
Beste probintzia batzuk	984	13,24
* 2024/2025 ikasturteko datuak	7.431	% 100

3 PARTE HARTZAILEEN PROFILA


Inkestari erantzun dioten 2985 pertsonetatik % 66,1 ikasleen **kolektibokoak** dira, % 22,4 IRIkoak, eta % 11,5 TEKAZELekoak (1. irudia).

1. irudia. **Erantzunen banaketa, kolektiboka (2.985 erantzun)**



Generoari dagokionez, inkestan parte hartu zuten 2985 pertsonetatik, 1775 emakume gisa identifikatu ziren, 1173 gizon gisa, eta 37 pertsona ez binario gisa. 2. irudian, datu horiek ehunekotan adierazita daude.

2. irudia. **Erantzunen banaketa, kolektiboen eta generoaren arabera (2.985 erantzun)**




Kolektiboaren eta generoaren arteko datuak gurutzatu ondoren egindako azterketak ez du alde nabarmenik erakusten kolektibo bakoitzaren barruko genero banaketan; kasu guztietan, emakumeen erantzunak dira nagusi gizonen aldean, nahiz eta irakasleen kolektiboan datu horiek antzekoagoak diren (3. taula).

3. taula. **Kolektiboa/Generoa (%)**

KOLEKTIBOA / GENEROA (%)	Emakumezkoa	Ez binarioa	Gizonezkoa
Ikasleria	41,34	0,87	23,88
IIP / IRI	11,49	0,23	10,68
TEKAZEL	6,63	0,10	4,75


3. irudiak erakusten du mugikortasunari buruzko inkestan parte hartu duten pertsonen banaketa ehunekotan, **ohiko ikasketa edo lan zentroarekiko**, eta Ikastegi bakoitzeko langileekin bat dator, gutxi gorabehera, UPV/EHUko hiru campusetan; hau da, erantzun gehien jaso dituzten ikastegiak (Bilboko Ingeniaritza Eskola, % 11,9rekin; Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatea, % 9,6rekin; eta Leioako Medikuntza Fakultatea, % 8,5ekin) dira unibertsitate komunitateko pertsona gehien biltzen dituztenak. 3. irudian ikus daiteke.

3.irudia. **Ikasketetako edo laneko ohiko zentroa (2.985 erantzun)**



Campusera astean zenbat egunetan joaten diren galderarekin lotuta, pertsona gehienak (% 71,7) bost eskola egunetan joaten dira, eta % 15,6 lau egunetan; gainerakoak 4. irudian zehaztutakoaren arabera banatzen dira: 3 egun (% 7), eta unibertsitateko komunitatearen zati txiki bat 2 edo 1 egunetan joaten da.

4. irudia. **Astean zenbat egunetan joaten zara Campusera? (2.985 erantzun)**




Kolektibo batetik bestera alde nabarmenik ez dagoen arren, ikasleak eta IRI kolektibokoak dira Campusera egun gutxien joaten diren taldeak; TEKAZEL kolektibokoek kasuan, aldiz, telelana egiten dutenean izan ezik, ezohikoa da ez joatea 5 egunetan (astelehenetik ostiralera).

Bizilekuaren eta UPV/EHUko campusaren arteko distantziari buruzko emaitzek (5. irudia) adierazten dute mugikortasunari buruzko inkestan parte hartu duten pertsonen % 23,8 bere ikasketa edo lan zentrotik 10 eta 20 kilometro arteko distantzian bizi dela; % 15,1, berriz, 5 eta 10 kilometro arteko distantzian; eta % 24,2 5 kilometro baino gutxiagoan (% 13,4 2 eta 5 kilometro arteko distantzian, eta % 10,8 2 kilometro baino gutxiagoan).

Nabarmentzekoa da inkesta erantzun dutenen % 18,7 ikastegitik edo lantokitik 50 kilometro baino gehiagora bizi direla.

Oro har, datu horiek baloratu ahal izateko, komenigarria da inkesta erantzun duten pertsonen ikasketa edo lan zentroak aipatzen dituen beste datu batekin gurutzatzea: % 36,5 Leioako Campusean kokatutako ikastegietara joaten da (hiriguneetatik distantzia handi samarrera dago Campusa).

5. irudia. **Bizilekuaren eta Campusaren arteko distantzia (2.985 erantzun)**




Egunero campus bakoitzera joateko jatorrizko lurraldeari dagokionez, irudi hauek inkestari erantzundako pertsonen jatorrizko lurraldeak islatzen dituzte.


6. irudian ageri den bezala, Gipuzkoako eta Bizkaiko campusetara lanagatik edo ikasketengatik joaten direnen % 80 baino gehiago lurralde horretatik joaten dira: % 83 eta % 84,3, hurrenez hurren.

6. irudia. **Campus bakoitzera egunero egindako joan-etorrien jatorri lurraldea**


Gipuzkoako campusa (775 erantzun)



Arabako campusa (588 erantzun)



Bizkaiko campusa (1.621 erantzun)




4 OHIKO GARRAIOBIDEA

Ikastegietara edo lantokietara iristeko **erabili ohi den garraiobideari** buruzko datu zehatzak ere biltzen ditu egindako mugikortasuneko inkestak (7. irudia).

Horrekin lotuta, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Inkestatutako pertsonen % **59,7 garraio publikoan** joaten da Unibertsitatera. (Leioako Campusaren kokapena dela eta, iristen den garraio publiko bakarra hiriarteko autobusa da —Bizkaibusen lineak—).
- % **16,8k garraiobide aktiboak** erabiltzen ditu unibertsitate zentroetara iristeko (bizikletaz edo oinez).
- Gainerako % **23,5ak** garraiobide pribatuak erabiltzen ditu, bereziki auto partikularra.


7. irudia. **Ohiko garraiobidea** (2.985 erantzun)



Garraio publikoaren erabilera handiak autobus zerbitzuaren azpiegitura mantentzearen eta hobetzearen garrantzia azpimarratzen du, batez ere Leioako Campuserako, izan ere, Leioako Campusera joateko ez dago beste inolako garraio publikotarako azpiegiturarik (metroa, adibidez).

Gauza bera gertatzen da unibertsitateko komunitatearen beharrak asetzeko tren eta metro lineekin. Autobus pribatuaren kasuan, Bizkaiko eskualde jakin batzuetatik Campusera joaten diren elkarateak aipatzen dira (8. irudia).


8. irudia. **Autobus zerbitzua, publikoa edo pribatua da? (1.061 erantzun)**



Nabarmendu beharreko beste datu bat honako hau da: lau pertsonatik bat (**% 23,5**) **garraio pribatuan** joaten da unibertsitatera, batez ere autoa erabilia (% 22,5).


Autoari dagokionez, erabiltzen dutenen % 73,3k adierazi du ez duela bidaia beste inorekin partekatzen. Bestalde, auto partikularrak ertainak (% 48,7) edo txikiak (% 24,7) dira, eta erdiek baino gehiagok erabiltzen duten erregaiak klima sisteman eragin handiena dutenak diesela (% 59,3) edo gasolina (% 33,4) dira. Datu horiek guztiak 9. irudian ikus daitezke.

9. irudia. **Partekatutako autoa eta erregai mota (673 erantzun)**



Motorra garraiobide gisa erabiltzen duten pertsonak % 0,87 baino gutxiago dira (26 pertsona): ia % 60k dio 125 eta 250 cc arteko zilindrada ertaineko motorrak erabiltzen dituela, eta motoen % 34 baino gehiago scooter motakoak dira, eta % 7 bakarrik dira zilindrada handikoak (10. irudia).

10. irudia. **Motorraren neurria eta erregai mota (26 erantzun)**



Gutxien erabiltzen diren aukerak **garraio aktiboarekin** lotuta daude; hau da, ikastegira edo lantokira oinez edo bizikletaz doazenekin (7. irudia - Ohiko garraiobidea). Kasu horretan, inkestari erantzundako pertsonen % **16,8k** soilik esan du oinez (311 pertsona) edo bizikletaz (192 pertsona) joaten dela bere campusera. Bizikletaren kasuan, pertsonen % 92,4k dio bere bizikleta erabiltzen duela, eta % 7,6k bizikleta publikoen mailegu sistema erabiltzen du (11. irudia).


11. irudia. **Bizikleta publikoa edo pribatua (185 erantzun)**



5 MUGIKORTASUNA ASTEBURUETAN EDO OPORRETAN

Itimi erantzundako 2985 pertsonetatik, % 78k (2329 pertsona) aipatu du ez duela ikasturtean zehar bizitokia aldatu beharrik izan.

12. irudia. **Bizitokia aldatu behar izatea (2.985 erantzun)**



Kolektiboen artean alde handirik ez dagoen arren (hiru kasuetan, erantzun nagusia da ez dutela bizilekua aldatu behar izan), adierazgarria da ikasleen ia heren batek (% 29,28) esan duela bizilekua aldatu behar izan dutela ikasturtean zehar (4. taula).

4. taula. **KOLEKTIBOA / Bizilekua aldatzera behartuta (%)**

	Bai	Ez
Ikasleria	29,28	70,71
IIP / IRI	9,28	90,71
TEKAZEL	4,37	95,62
Guztira (kopurua)	655	2.330

Interesekotzat jo da asteburuetan edo oporraldietan ikasketak edo lana egiteko bizilekuz aldatu behar izan duten pertsonen egiten dituzten bidaien kopurua jasotzea. Emaitzak kontuan hartuta, inkestari erantzundako pertsonen bi herenek baino gehiagok (% 63,5) 36 bidaia baino gehiago egiten dituzte. Horien artean, nabarmentzekoa da % 47,5ek baino gehiagok 50 bidaia baino gehiago egiten dituztela ikasturtean zehar (13. irudia). Bidaia horien % 78an, garraio publikoa (autobusa edo trena) eta ibilgailu partikularra (% 13,6) erabiltzen dira batez ere. 14. irudian ikus daiteke.

Figura 13. **Unibertsitate egoitza dagoen tokitik bizilekura ikasturte bakoitzean egin-dako bidaia kopurua (756 erantzun)**






Figura 14. **Bizilekuaren eta egoitzaren arteko garraiobide nagusia (656 erantzun)**



Bizilekutik UPV/EHUko ikastegi eta eraikinetara joateko **garraiobide «idealari»** dagokionez, oso erantzun heterogeneoak jaso dira: inkestatutako pertsona gehienek garraio publikoaren alde egin dute (% 51,5), eta batez ere hiriarteko autobusaren alde; % 22,7k garraio aktiboaren alde (oi-nez edo bizikletaz); eta % 14,4k garraio pribatuaren alde, batez ere autoz joatearen alde (15. irudia).

Figura 15. **Egoitzatik eta bizilekutik Campusera joateko garraiobide ideala**
(2.985 erantzun)




6 TXIRRINDULARIEN MUGIKORTASUNAREN BALORAZIOA

Unibertsitateko mugikortasun jasangarriaren aldeko apustuaren testuinguruan, bizikleta irten-bide praktikoa da campusera iristeko eta campusetik egunero egiten diren joan-etorrietarako. Hori dela eta, mugikortasunari buruzko inkestan, unibertsitateko kolektiboak ikastegietara egin beharreko joan-etorrietan bizikletaren erabilera sustatzen duten bost alderdiri buruz duen iritzia jaso nahi izan da:

- Campuseko bizikleta aparkaleku kopurua
- Aparkaleku segurua izatea eta funtzionamendua
- Campus inguruan bidegorria izatea
- Segurtasuna bizikleta bidezko zirkulazioan
- Campusera bizikletaz iristeko erraztasuna

16. irudian ikus daitekeen moduan, balorazioen batezbestekoa 2,78 eta 3,10 artekoa da. Emaita hori normalizat jotzen da, eta hiri inguruneetako ikastegietara iristeko erraztasuna adierazten du. Hala ere, Leioako Campuseko emaitzak aztertuz gero, balorazio txarrak egiten dira: 2,14 eta 2,66 artean daude.

Figura 16. **Baloratu UPV/EHUko campusetako BIZIKLETA BIDEZKO Mugikortasunarekin lotutako alderdi hauek (1-5eko batezbestekoa) (2.985 erantzun)**




1: oso txarra 2: txarra 3: normala 4: ona 5: oso ona.

7 OINEZKOEN MUGIKORTASUNAREN BALORAZIOA

7. irudian erakusten diren emaitzen arabera, beren unibertsitate zentroetara joandakoen % 10,4 bakarrik joaten dira oinez, eta beren egoitza Campusetik hurbil egotea hautaketa horrekin lotuta dago. Inkesta erantzundako pertsonen % 19,1ek uste du mugikortasun modu hori egokiena dela unibertsitatara joateko (15. irudia). Datu horrek adierazten du oso garrantzitsua dela campuseren inguruan oinezkoentzako gune seguruak eta irisgarriak sustatzea.

UPV/EHUko campusetan eta inguruan oinezkoen mugikortasuna sustatzeko eta hobetzeko funtsezkotzat jotzen diren hainbat alderdirekin unibertsitate taldea osatzen duten pertsonen gogobetetze maila ezagutzeko asmoz, inkesta honen bidez baloratu nahi dira bide segurtasuna, gune erosoak izatea, campusean oinez ibiltzeko erraztasuna eta irisgarritasun unibertsala. Emaitzak 17. irudian daude jasota. Ebaluatutako lau alderdiek balorazio ona (4) eta normala (3) lortu dute. Balorazio onena jaso duten alderdiak Campusean oinez ibiltzeko erraztasunarekin (5etik 3,78) eta espazio publiko eroso eta seguruak izatearekin (5etik 3,67) lotuta daude. Bide segurtasuna eta irisgarritasun unibertsala dira hobetzeko tarteak duten alderdiak. Lortutako balorazioak honako hauek izan dira, hurrenez hurren: 5etik (normala) 3,47 eta 3,39 puntu. Azken bi alderdi horiei dagokionez, balorazioa nabarmen jaitsi da Leioako Campusera joaten diren inkestatuen artean: 2,82 puntu Campuserako irisgarritasun unibertsalari dagokionez.

17. irudia. **Baloratu UPV/EHUko campusetako oinezkoen mugikortasunarekin lotutako alderdi hauek (1-5eko batezbestekoa) (2.985 erantzun)**




1: oso txarra 2: txarra 3: normala 4: ona 5: oso ona.

8 GARRAIO PUBLIKOAREN BALORAZIOA

Garraio publikoa da unibertsitatera joateko gehien erabiltzen den modua. Lehenago azaldu dugun bezala (7. irudia), mugikortasunari buruzko inkestari erantzun dioten pertsonen % 59,7k adierazi du normalean garraio publikoren batean iristen dela Campusera: hiriarteko autobusa (% 35,6), hiri autobusa (% 11,2) edo trena/metroa (% 8,2). Gainera, heren baten ustez, Campusera iristeko garraibide «ideala» da (15. irudia).

Atal honetan, unibertsitateko kolektiboak garraio modalitate horri buruz egiten duen balorazioa jaso nahi izan da, eta, horretarako, hasiera batean garraio mota horren erabilera are gehiago bultzatuko luketen zenbait alderdi azpimarratu dira: 1) ordutegien maiztasuna, 2) denbora aurreztea eta 3) joan-etorrietara bideratutako dirua eta 4) irisgarritasun unibertsala. Lortutako emaitzak 18. irudian daude jasota.

18. irudia. **Baloratu UPV/EHUko campusetako garrio PUBLIKOAREKIN lotutako alderdi hauek (1-5eko batezbestekoa) (2.985 erantzun)**



1: oso txarra 2: txarra 3: normala 4: ona 5: oso ona.


Emaitza horietan oinarrituta, ezin dugu esan ikasleek eta langileek garraio publikoaren inguruan planteatutako alderdi horiei buruz emandako balorazioa oso ona denik, bakar batek ere ez baitu balorazio ona (4) edo oso ona (5) lortu. Hala ere, maiztasuna, azkartasuna eta irisgarritasun unibertsala "normalizat" hartzen dira, 5etik 3,07, 3,42 eta 3,17ko puntuazioarekin, hurrenez hurren. Balorazio okerrean jaso duen itema batez besteko prezioekin lotuta dagoena; balorazio txarra (2,94) jaso du. Emaitza horien arrazoiak txosten honetako azken atalean daude jasota.

9 GARRAIO PRIBATUA AUKERATZEKO ARRAZOIAK

Txosten honen 4. puntuaz azaldu den bezala, ikastegietara garraio pribatuan joaten diren pertsonen % 23,4k norbere autoa (% 22,5) eta motorra (% 0,9) erabiltzen dute batez ere.

Garraio publikoak onura ugari eskaintzen dituen arren, unibertsitateko kideek hainbat arrazoi dituzte garraio pribatuaren alde egiteko. Arrazoi horiek eta inkestatutako pertsonen arabera hautaketa (%) 19. irudian ageri dira.

19. irudia. **Garraio pribatua aukeratzeko arrazoiak (2.200 erantzun)**



Mugikortasunari buruzko inkestari erantzun dioten pertsonen % 16,9k adierazi du Campusera joateko garraio pribatua aukeratzearen arrazoiak denbora faltarekin lotuta daudela. Askotan, garraio pribatua publikoa baino azkarragoa izan daiteke, batez ere garraio publikoaren aukerak mugatuak diren edo zerbitzuen maiztasuna handia ez den tokietan. Hori bereziki garrantzitsua da ordutegi estuak edo bestelako konpromiso pertsonalak eta familia eta lana uztartzeko konpromisoak dituztenentzat.

Bestalde, % 24,3k garraio pribatua aukeratzen du erosotasun handiagoa eskaintzen diolako, bai garraio pribatuak ematen duen independentzia eta kontrolagatik, bai noiz irten erabaki dezaketelako, garraio publikoaren ordutegi eta ibilbide finkoen menpe egon gabe. Gainera, ibilbide horiek, kasu batzuetan, ez dira existitzen: galdera horri erantzun dioten pertsonen % 22,8k esan du ez duela garraio publikoa hautatzeko aukerarik. Lurraldeko eremu batzuetan, bereziki campusetatik urrun edo hiri inguruetakako edo landa eremuetako eremuetan, garraio publikoa mugatua izan daiteke edo baliteke halako zerbitzurik ez izatea ere. Kasu horietan, garraio pribatua da Campusera iristeko aukera bideragarri bakarra.

10 ZER ALDAKETA GERTATU BEHARKO LITZATEKE CAMPUSERA JOATEKO GARRAIOBIDE AKTIBOA ETA/EDO PUBLIKOA AUKERATZEKO?

Mugikortasunari buruzko inkestari amaiera emateko, item ireki baten bidez, unibertsitateko hiru kolektiboen iritzia jaso nahi izan da, Campusera joateko orduan garraio bide jasangarriaren erabilera sustatzeko eta bultzatzeko garaian UPV/EHUko kudeaketa organoek bereziki landu beharko lituzketen alderdien inguruan.

Garrantzitsua da azpimarratzea mugikortasunari buruzko inkesta erantzun duten pertsona gehienek (2985 inkestetatik, 787 pertsonak ekarpen pertsonala egin du) beren iritzia eman dutela galdera ireki honetan.

Erantzunek, askotarikoak izateaz gain, berretsi egiten dituzte aurreko ataletako balorazioetan oinezkoen mugikortasunari, bizikleta bidezko mugikortasunari eta garraio publiko bidez mugikortasunari buruz jasotako emaitza asko.

Erreferentziazko campusaren arabera, inkestari erantzundakoen artean kezka handiena sortzen duten gai desberdinak.

Erantzun askok garraio publikoko sistemen hobekuntza aipatzen duten arren, pertsona horien campusarekin oso lotuta dauden kezkak daude. Hori dela eta, erantzunak campusen arabera multzokatu ditugu, ondorio gisa. Horietako bakoitzean jasotako erreferentzia edo erantzun kopurua zehaztu dugu:

LEIOAKO CAMPUSA

Leioako Campuseko 625 erabiltzailek ekarpen gehigarriaren bat egin dute inkestako itemen inguruan. Horietatik 446k Campusa Bilborekin eta Bizkaiko beste herri edo eskualde batzuekin lotzen duten autobus zerbitzuei buruzko iradokizunak jasotzen dituzte.

1. Garraio publikoaren ordutegien maiztasuna areagotzea (446 erreferentzia)

Ekarpen asko campusetara iristen den garraio publikoaren maiztasun handitzearekin lotutako iradokizun orokorra (ñabardurarik gehitu gabe) besterik ez dira. Hala ere, beste pertsona batzuek helmuga eta ordutegiei buruzko ekarpen zehatzagoak egiten dituzte, eta honela multzokatu ditzakegu:

- **Eskualdeak:** 76 ekarpenek maiztasun eta zuzeneko konexio gehiago eskatzen dituzte, eta Bilboko konurbaziotik urrun dauden Bizkaiko eskualdeak eta herriak aipatzen dituzte (Arratia, Bermeo, Lekeitio, Busturialdea, Urduña, baita Castro Urdiales ere).

- **Ordutegiak:** 48 ekarpenak Leioako autobusen ordutegiak eskolen hasieraren edo amaieraren arabera egokitzea iradokitzen dute. Adibidez:
 - Zerbitzuek 13:30ean irteteko ordurik ez izatea, ordu horretan eskolak amaitzen badira)
 - Maiztasun gehiago goizeko 08:00ak aldera iristeko.
 - Maiztasun gehiago 14:00-16:30 artean edo eskolarik ez dagoen aldietan.
 - Puntako orduetan, 30 edo 20 minutuz behingo maiztasunak.
- **Prezioei** dagokienez, 32 pertsonak bakarrik aipatu dute esplizituko garraio publikoaren prezioak merkatu beharko liratekeela. Agian, inkestaren garaia (2024ko lehen sei hilekoa) zehaztea komeniko litzateke. Izan ere, 2022tik indarrean zeuden garraiorako laguntzak.

2. METROAREKI KO KONEKXIOA ETA LANTZADERA AUTOBUSA METROTIK (59 erreferentzia)

Leioako Campuseko 59 iruzkinek Campusaren eta Metroaren artean konexiorik ez dagoelako kexa agertzen dute, eta haietako 30ek iradokizun zehatza egiten dute: Campusa zuzenean Leioako metro geltokiarekin / Astrabuduarekin lotuko duen **lantzadera autobusa** gaitzea.

Azpirarratzekoa da 19 pertsonak beren ekarpenetan "zentsugabekeria" hitza aipatzen dutela egunero milaka pertsona biltzen dituen campusa edozein hirigunetatik horren urrun dagoelako.

3. BIZIKLETAK ETA CAMPUSA: BIDEGORRIAK ETA BIZKAIBIZIREN GELTOKIA (40 erreferentzia)

- **Campuseraino iristen den bidegorririk ez izatea:** Distantzia eta Campusaren inguruko al-dapak gorabehera, 40 pertsonak adierazi dute interesgarria litzatekeela Campusera bizikletaz iristeko errepidera sarbide segurua eta bereizia bermatuko lukeen bidegorria eraikitzea.

Campusa inguratzen duen bidegorria badago ere, Leioa udalerriko bidegorrien saretik des-konektatuta dago. Hain zuzen ere, Udalaren webgunean irakur daitekeenez, konexio tartearak "proiektuan" edo "azterketa fasean" daude.

- **BIZKAIBIZIren geltokirik ez Campusean:** Era berean, 35 pertsonak espresuki eskatu dute BIZKAIBIZIren geltoki bat jartzea Campusean, bertara bizikleta elektriko publiko iritsi ahal izateko.

BIZKAIBIZI, 650 bizikleta elektriko eskaintzen dituen Aldundiaren sistema, 9 udalerritan dago ezarrita: Bilbo, Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Barakaldo. Hain zuzen ere, Leioan 8 geltoki ditu zerbitzu horrek, baina bakar bat ere ez Campusaren inguruan.

4. GIPUZKOA ETA ARABAREKIKO AUTOBUSEKO ZUZENEKO KONEKXIOAK (49 erreferentzia)

Ekarpenak egin dituztenen artean, 49 pertsonak garraio publikoa (adibidez, MUGI sisteman) eta zuzena ezartzea nahi dute Leioako Campusaren eta Donostiaren (39 pertsona), Gasteizen (7 pertsona) eta Gipuzkoako beste eskualde batzuen (3 pertsona) artean.

Leioako Campusera garraio publikoan iristeko gutxienez bi autobus hartu behar dituztelako kexa adierazi dute ia pertsona horiek guztiek.

BILBON DAUDEN IKASTEGIAK

Bilboko zentroetako 160 erabiltzailek ekarpen gehigarriren bat egin diete inkestako itemei. Horietatik 67k iradokizunak egiten dituzte Bilbotik bertatik (baina, bereziki, beste herri, eskualde eta probintzia batzuetatik) ikastegietara joateko autobus, metro edo tren zerbitzuei buruz.

1. Garraio publikoaren ordutegi maiztasuna handitzea eta hiriarteko autobusaren geltokiak ikastegietara gerturatzea (67 erreferentzia)

Nahiz eta ekarpen askok garraio publikoaren maiztasuna handitu beharko litzatekeela aipatu, ñabardurarik egin gabe, 18 pertsonak hiriarteko autobusen geltokiak ikastegietatik hurbilago ez izateagatik kexa adierazi dute (horren ondorioz, bi garraio jauzi egin behar dituztelako):

Prezioei dagokienez, Bilboko ikastegietara joaten diren 17 pertsonak baino ez dute garraio publikoaren prezioak merkatzearen alde egiten.

2. Bizikleten erabilera (36 erreferentzia)

Bizikleten erabilerari buruzko 36 pertsonen iradokizunak arlo hauetan multzokatu daitezke:

- **Bidegorriak:** 19 pertsonak proposatu dute Ikastegietara iristeko bidegorrietan hobekuntzak egitea eta, horrekin lotuta, itsasadarren bi ertzetan (Ezkerraldean eta Getxoraino) konexio seguruak gaitzea
- **Bizikleta-aparkaleku seguruak eta itxiak:** 8 pertsonak eskatu dute unibertsitateek bizikletentzako aparkaleku seguruak eta itxiak izatea.
- **Bizikletaz joaten direnentzako dutexak:** 9 pertsonak eskatu dute unibertsitateek aldagelak eta dutexak izan ditzatela, bizikletaz datozenek erabil ditzaten eta irakaskuntza edo lan jarduerak egin aurretik arropak alda ditzaten.
- **BILBAOBIZI udal bizikleta zerbitzuaren geltokiak.** Bilbon kokatutako ikastegien inguruan, Sarrikon geltoki bat dago, beste bat Termibusen eta hirugarren bat Elkano kalean. Zortzi erabiltzailek proposatu dute beren kopurua edo edukiera handitzea, unitateen errotazioa eta erabilgarritasuna hobetzeko.

Beste ekarpen batzuk:

- Autoentzako aparkalekuak eta birkarga elektrikoak

Sei pertsonak autoetarako aparkaleku gehiago eskatu dituzte ikastegietan, baita UPV/EHUko aparkalekuek auto elektrikoak kargatzeko hartuneak izatea ere

- Gipuzkoako eta Gasteizko eskualdeekin autobusen zuzeneko konexioak.

Bost pertsonak eskatu dute Bilbo eta Gasteiz arteko autobus zerbitzua merkatzea (La Uniónek du emakida), Donostia eta Bilbo arteko ibilbidean aplikatzen diren BARIK edo MUGI tarifen antzekoekin.

Gainera, hiru erabiltzailek Bilboren eta Gipuzkoako eskualde batzuen arteko zuzeneko konexioak eskatu dituzte.

ARABAKO CAMPUSA

Arabako Campuseko 257 erabiltzailek inkestako itemekin lotutako ekarpen osagarriren bat egin dute.

1. Hiriarteko garraio publikoaren zerbitzuen maiztasunak eta geralekuak hobetzea (206 erreferentzia)

Inkestari egindako ekarpen gehigarrien % 80 Campusera Gasteiztik kanpo datozen eta, beraz, hiriarteko garraioa behar duten pertsonen iradokizunei edo eskaerei dagozkie. Gai edo jatorri zehatzak adierazten dituztenen artean, iritzi konbergenteak bereizi behar dira (horien jatorria kontuan hartuta):

Bizkaitik

Arabako Campusera iristeko hiriarteko garraioa hartzen dutenek azaldutako kezkei dagokienez, 25 lagunek Bizkaitik etortzearekin lotutako ekarpen zehatzak egin dituzte (bai Bilbotik bertatik, bai Eskuinaldetik eta Ezkerraldetik ere, eta baita Durangoaldetik ere, besteak beste).

Gehienek (25 iruzkinetatik 19) aipatzen dute Bizkaiarekin lotzen duen autobus zerbitzua ez da-goela sartuta tarifa publikoen sisteman (Barik, eta abar) eta emakida pribatu batek kudeatzen duela (AUTOBUSES LA UNIÓN). Aipatutako zerbitzuak bere tarifa propioak ditu.

Gipuzkoatik eta Arabako beste eskualde batzuetatik

Arabako Campuserako hiriarteko garraioaren inguruko kezkak adierazi dituztenen artean, 33 lagunek ekarpen zehatzak egiten dituzte Donostiatik eta Gipuzkoako beste herri batzuetatik iristeko

Trena: 20 pertsonak eskatu dute RENFEko eskualdeko aldiriko zerbitzuen maiztasun handiagoa, Irún – Gasteiz – Miranda linean dauden herri eta eskualdeetatik Campusera joateko. Ekarpene gehienek arabera, maiztasun eta ordutegiei dagokienez, zentzuzko alternatiba beharko litzateke trena Campusera joateko aukera bihur dadin, geltokia oso gertu baitago.

Autobusak Donostiatik: 13 pertsonak zuzenean Campusera iristen diren autobusak egotea eskatzen dute, zerbitzu guztiak autobus geltokian bakarrik gelditzen baitira, Campusetik urrun.

Arabako eskualdeak: Arabako beste udalerri batzuetatik joaten diren 11 pertsonak eskatu dute, maiztasunak hobetzeaz gain, hiriarteko autobusek geltokiak Campusetik hurbil izatea.

2. Gasteiz barruko mugikortasunari buruzko proposamenak: **Bizikleta bidezko joan-etorriak**

Gasteiz laua da eta 180 km-ko bidegorrien sarea da. Sare horrek Campusa beste auzo batzuekin lotzen du. Baina hirian ez dago bizikletak alokatzeko sistema publikorik.

Alde horretatik, 18 pertsonak esan dute Campusera joateko bizikleta erabiltzen dutela, eta horietatik 10ek eskaera zehatzak egin dituzte:

- Bizikletentzako aparkalekuak: 6 pertsonak gehiago jartzeko eta seguruak eta estaliak izateko eskatzen dute.
- Bidegorriak handitzea: 4 lagunek Campusera iristen diren bidegorriak handitzea eskatu dute.

3. Hiriko garraio publikoa

Campusari dagokionez, ia ez dago iruzkin zehatzik Campusera iristen den hiriko garraio publikoari buruz. Hiru pertsonak tranbia bidezko konexio gehiago eskatzen dituzte, baina unibertsitateko geltokia da tranbiaren lineetako baten irteera tokia eta linea hori, hain zuzen ere, autobusen geltoki intermodalarekin lotuta dago.

4. Auto pribatuaren erabilera

- Campusean TAO kentzea: 4 lagunek eskatu dute.
- Autoa partekatzeko aukerak (app-ak eta abar): 2 lagunek eskatu dituzte.

Beste batek Campusean kargagailu elektrikoak eskatu ditu.

GIPUZKOAKO CAMPUSA

Gipuzkoa Campuseko 344 erabiltzailek inkestako itemekin lotutako ekarpen osagarriren bat egin dute.

1. Garraio publikoaren ordutegien maiztasuna areagotzea (150 erreferentzia)

- Hiriarteko nahiz hiriko tren autobus gehiago, konexio hobeak eta puntualtasun handiagoa izatea (ordutegiak errespetatzea).
- Ordutegiak errespetatzea eta puntualtasuna bermatzea
- Goizeko eskola/lan ordutegiak autobusen ordutegira egokitzea (puntako orduetan beteta joaten dira, masifikatuta...).
- Autobus gehiago arratsaldez.

2. Gipuzkoako Campusarekin konexio zuzenak jartzea (135 erreferentzia)

- Bilbotik, Gasteiztik eta Iruñetik Gipuzkoako Campusera datozen pertsonentzako garraio zuzena. Une honetan, hainbat aldaketa egin behar dira (tranbia-metroa / hiriarteko autobusa / hiri autobusa), eta horrek, gastu erantsi handia eta bidaiaren iraupena luzatzea dakar berekin (ibilbideen iraupena, garraibide baten eta bestearen arteko itzarote denborak). Beste bi Campusetara iristeko aukerekin alderatuta, egoera okerragoa da.
- Garraio publikoaren eskaintza hobetzea, hiriarteko autobusak Gipuzkoako Campusarekin zuzenean konektatzeko, lurraldetik bertatik (Irun, Hondarribia, Debagoiena eta Debabarrena, Goierri, Urola) edo inguruko lurraldeetako beste herri batzuetatik (Durango, Galdakao, Zornotza, Barakaldo, Nafarroako herriak...).
- Hiriarteko garraioaren kudeaketa publikoa unibertsitateko kolektiboaren esku ez uztea. Al-
dundiak inplikatzeko Gipuzkoako Campusera iristeko beharren arabera garraio publikoaren antolaketan. Gipuzkoatik Leioara iristeko garraioa errazteko, GFAk 2023ko abenduan proposatu zuen elkarte sortu eta bertara joaten direnei dirulaguntzak ematea (*“kaltetuek irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortzea, kolektiboa ez ezik, espedizioei, ibilgailu kopuruari, ibilbideari, ordutegiei eta gainerako gaiei dagokienez dauden beharrak identifikatzeko aukera emango duena (...). Elkarte eratuta dagoenean, beharrak zehaztuta geratzen direnean eta zerbitzua kontratatzen denean, nire Departamenduak zerbitzu hori finantzatu ahal izango du eta, ahal den neurrian, Mugiren tarifa baldintzen arabera berdinduko du zerbitzua”*) —MUGIKORTASUN, TURISMO ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDU DEPARTAMENDUAREN prentsa oharra— 2023/12/13. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/multimedia/-/leioara-autobus-zerbitzua->
- Garraio publikoaren zuzeneko konexioa ospitaleen inguruan dagoen Medikuntza eta Erizaintza Fakultatera eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko egoitzara iristeko.

3. Ibilbideen iraupena gutxitzeko neurriak ezartzea (72 erreferentzia)

- Gipuzkoako Campusera etortzea *“kasu batzuetan odisea da (05:30ean jaiki behar dugu, gela 08:30erako egongo garela ziurtatzeko)”*; autoz 20-25 minutu eskasekoak izango liratekeen ibilbideak ordubetetik gorako bidaia bihurtzen dira garraio publikoa erabilia, edo autoz ordu eta erdiko ibilbideak bi ordu eta erdi edo hiru ordu dira garraio publikoan... *“Autoa erabiltzera behartzen gaituzte”*.

4. **Unibertsitateko garraioari lotutako kostuak finantzatzea eta diruz laguntzea** (30 erreferentzia)

- Prezio murriztuak unibertsitateko kolektiboarentzat eta zuzeneko laguntzak hiriko eta hiriarteko garraioa erabiltzeko. Horrela, bidaia ez litzateke inolaz ere merkeagoa izango auto pribatuaren garraio publikoan baino.
- Doakotasuna Campusera garraio publikoan datozenentzat.

5. **Norberaren eta familiaren kontziliaziorako neurriak handitzea** (26 erreferentzia)

- Lanera sartzeko eta lanetik irteteko ordutegiak malgutzatzea, seme-alaben eskola ordutegietara egokituta.
- Telelanaren aukera handitzea, lanaldi erdi presentzial gehiagorekin... ***“harrigarria da karbono aztarna murrizteko mugikortasun inkesta batean telelana ez aipatzea”***.
- Eskolak goizez bakarrik kontziliazioa errazteko.

6. **Azpiegiturak hobetzea bizikleta gehiago erabiltzeko** (22 erreferentzia)

- Bidegorrien sarea (ibilbide berriak) zabaltzea, bai Donostiako auzoetatik Campusera, bai Donostia eta inguruko herrien artean (Zarautz, Orio, Oiartzun, Astigarraga, eta abar).
- Bidegorrien sarea hobetzea, bizikletetan gehiago pentsatzea eta autoetan gutxiago, bizikletari lehentasuna ematea autoaren aurrean: ***“Donostia bizikletetarako baino gehiago, autoetarako pentsatuta dago”***. Galtzadetakoz zoru hobetzea segurtasunagatik; oztopo ugari daude (zintarriak, jendea korrika, geldialdiak, obrak, erregulatu gabeko semaforoak...).
- DBiziren geltoki gehiago Donostiako auzoetan eta Campusean. Bizikleta publikoak erabiltzeko kostuak merkatzea.
- Segurtasun handiagoa bizikleta pribatuak erabiltzeko: bizikletentzako aparkaleku seguruak Campusean; bizikleta estaliak eta doakoak gordetzea, segurtasun kodearekin.
- Campuseko ikastegietan duxatzeko eta aldagelak erabiltzeko aukerak, bizikleta erabili ahal izateko. Bizikleta erabili ahal izateko eguraldi txarra.

7. **Unibertsitate komunitatearentzat Donostiako alokairuaren prezioak merkatzeko neurriak negoziatzea** (11 erreferentzia)

- Lantoki/ikastoki duen Campusek lurraldean (edo handik gertu) bizi ahal izatea, etxebizitza bana edo modu partekatuana lokatu ahal izateko prezioak gutxituta.

8. **Beste proposamen batzuk** (29 erreferentzia guztira)

- Ohitura pertsonalak aldatzea, batzuetan autoa erabiltzen baita erosotasunagatik, goiz ez esnatzeagatik, autobusaren zain ez egoteagatik...
- Metro/topoaren geltokia Gipuzkoako Campusera hurbiltzea.
- Auto elektrikoetarako karga puntuak Gipuzkoako Campusean.
- Gipuzkoako Campuseko kanpoko aparkalekuetan Gipuzkoatik kanpo etorri eta Donostian bizi diren pertsonen iraupen luzeko aparkalekua ahalbidetzea.
- Campus aldaketa: bizileku duen lurraldean ikasi eta lan egitea.

- Oinez joateko denbora gehixeago izatea; estres gutxiago.
- Autobus kolektiboa UPV/EHUko langileentzat.
- Hiriak eta irisgarritasuna pentsatzeko sisteman aldaketa.
- Laguntzak bizikleta elektrikoak erosteko.
- Patinete elektrikoak trenean sartzeko aukera.

I. ERANSKINA

UPV/EHUKO UNIBERTSITATE-KOMUNITATEAREN MUGIKORTASUNARI BURUZKO INKESTA. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

ENCUESTA DE MOVILIDAD DE LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA UPV/EHU. ACCIÓN POR EL CLIMA

Beste modu batera joan nahi zenuke campusera eta mugikortasunari lotutako zure karbono-aztarna murriztu?

Inkesta labur honetan (5') parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Inkesta hori unibertsitate-komunitatearen ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan batean kokatzen da. Azterlan honen helburua bikoitza da: batetik, unibertsitate-komunitatearen mugikortasunari lotutako karbono-aztarna zehaztea, eta, bestetik, UPV/EHUn mugikortasuna hobetzeko aukerak identifikatzea.

Eskerrik asko aldez aurretik.

¿Te gustaría desplazarte de otra forma al campus y reducir tu huella de carbono asociada a la movilidad?

Te invitamos a participar en esta breve encuesta (5') que se enmarca en un estudio sobre el impacto ambiental de la comunidad universitaria. El objetivo de este estudio es doble: por un lado, determinar la huella de carbono asociada a la movilidad de la comunidad universitaria y, por otro lado, es identificar oportunidades de mejora de la movilidad en la UPV/EHU.

Muchas gracias de antemano.

1. ATALA / SECCIÓN 1

Datu orokorrak / Datos generales

Kolektiboa / Colectivo

- Ikaslea/ estudiante
- Irakasle edota ikertzailea / Docente y/o investigador/a
- TEKAZEL

Generoa / Género

- Emakumezkoa/ Mujer
- Gizonezkoa / hombre
- Ez bitarra / no binario

Campus eta ikastegia / Campus y centro

Zein campus eta zentrotara joan ohi zara lanera edo ikastera? / ¿Cuál es el campus y centro al que acudes habitualmente a trabajar o estudiar?

- Gipuzkoa- Arkitektura / Arquitectura
- Gipuzkoa- Zuzenbidea/ Derecho
- Gipuzkoa- Informatika / Informática
- Gipuzkoa- Kimika/ Química
- Gipuzkoa- Psikologia/ Psicología
- Gipuzkoa- Ekonomia eta Enpresa/ Economía y Empresa
- Gipuzkoa-Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia/
- Gipuzkoa Medikuntza /UD Medicina
- Gipuzkoa- Donostia-San Sebastián/ Ingeniaritza/ Ingeniería
- Gipuzkoa- Eibar- Ingeniaritza/ Ingeniería (EIBAR)

Astean zenbat egunetan zoaz campusera? / ¿Cuántos días por semana acudes al campus?

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Zer distantzia dago zure bizilekutik campusera? / ¿Qué distancia hay desde tu lugar de residencia al campus?

- <2 km
- 2-5 km
- 5-10 km
- 10-20 km
- 20-50 km
- 50-100 km
- >100 km

Zein da zure jatorrizko lurraldea eguneroko joan-etorrietarako? / ¿Cuál es tu territorio de origen para los desplazamientos diarios?

- Araba / Álava
- Bizkaia / Bizkaia
- Gipuzkoa / Gipuzkoa
- Besteak / Otras

2. ATALA / SECCIÓN 2

Ohiko garraiobidea / Medio de transporte habitual

Distantziari dagokionez, zein garraiobide erabiltzen duzu? / en términos de distancia, ¿Qué medio de transporte utilizas?

- Oinez / A pie
 - Patinetea / patinete
 - Bizikleta / Bicicleta
 - Hiriarteko autobusa / Autobús interurbano
 - Hiri-autobusa / Autobús urbano
 - Metroa / Metro
 - Trena / Tren
 - Tranbia / Tranvía
 - Kotxea / Coche
1. Partekatua ala ez-partekatua / Compartido o no compartido.
 - Partekatua bada persona kopurua zehaztu / En caso de compartido indicar el número de personas
 2. Erregai-mota/ Tipo de combustible:
 - Diesela/ Diésel
 - Gasolina/ Gasolina
 - Hibridoa/ Híbrido
 - Elektrikoa/ Eléctrico
 3. Kotxearen tamaina/ Tamaño del vehículo:²
 - **Txikia / Pequeño:** Fiat 500, Renault Twingo, Ford Fiesta, Opel Corsa.
 - **Ertaina / Mediano:** Ford Focus, Audi A3, Audi A4, Peugeot 508.
 - **Handia / Grande:** Audi A5, Audi A6, Sports como Audi TT, Porsche 911, 4x4, Volkswagen Touran, Renault Scenic, Opel Zafira.
 - **Ezezaguna / Desconocido**
 - Motorra / Moto
 4. Erregai-mota/ Tipo de combustible:
 - Diesela/ Diésel
 - Gasolina/ Gasolina
 - Hibridoa/ Híbrido
 - Elektrikoa/ Eléctrico
- Motorraren tamaina/ Tamaño de la moto:³
- **Scooter:** <125cc
 - **Medium:** 125-500cc
 - **Large:** >500cc
 - **Ezazaguna / Desconocido**

² Fuente: GHG conversion factors 2022 (DEFRA).

³ Por tamaño del motor. Fuente: GHG conversion factors 2022 (DEFRA).

3. ATALA / SECCIÓN 3

Gogobetetze-maila mugikortasunarekin eta trantsizio ekologikoa / Grado de satisfacción con la movilidad y transición ecológica

Aukeratu ahal izango bazenu, zein izango litzateke Campusera joateko garraiobiderik egokiena zure bizilekutik? Si pudieras elegir ¿Cuál sería el medio de transporte ideal para ir al Campus desde tu lugar de residencia?

- Oinez / A pie
- Patinetea / patinete
- Bizikleta / Bicicleta
- Hiriarteko autobusa / Autobús interurbano
- Hiri-autobusa / Autobús urbano
- Metroa / Metro
- Trena / Tren
- Tranbia / Tranvía
- Kotxea/ Coche
- Motorra / Moto

Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko alderdi hauek campusean baloratu / Valora los siguientes aspectos de **movilidad ciclista** en el campus.

	OSO TXARRA/ MUY MALO	TXARRA/ MALO	ARRUNTA/ NORMAL	ONA/ BUENO	OSO ONA/ MUY BUENO
Número de aparcabicis en el campus					
Existencia y funcionamiento de aparcamiento seguro					
Existencia de carril bici entorno al campus					
Seguridad en la circulación en bicicleta					
Facilidad de acceso en bici al campus					

Campuseko **oinezkoen mugikortasunari** buruzko alderdi hauek baloratu / Valora los siguientes aspectos de **movilidad peatonal** en el campus.

	OSO TXARRA/ MUY MALO	TXARRA/ MALO	ARRUNTA/ NORMAL	ONA/ BUENO	OSO ONA/ MUY BUENO
Seguridad vial en el entorno del campus (Visibilidad en cruces, velocidad de los vehículos ...)					
Existencia de aceras/ plazas y/o parques seguras/cómodas/anchas					
Facilidad de acceso peatonal en el campus					
Accesibilidad universal (para todas las personas)					

Campuseko **garraio publikoari** buruzko alderdi hauek baloratu / Valora los siguientes aspectos del **transporte público** en el campus.

	OSO TXARRA/ MUY MALO	TXARRA/ MALO	ARRUNTA/ NORMAL	ONA/ BUENO	OSO ONA/ MUY BUENO
Frecuencia en horario lectivo o laboral					
Rapidez y conexión con otros medios					
Precio					
Accesibilidad universal (para todas las personas)					

Azkenik, motorizatu gabeko ingurunean edo garraio publikoan joan ezean, zein da garraio-bide pribatu bat aukeratzeko arrazoia? / Finalmente, en caso de no ir en medio no motorizado o transporte público ¿Cuál es el motivo de escoger un modo de transporte privado? (OPCIONAL)

- Erosotasuna / Comodidad
- Segurtasuna / Seguridad
- Denbora falta / Falta de tiempo
- Urruntasua/ Lejanía
- Ez dago ibilbide egokirik erabilgarri/ No hay ruta adecuada disponible
- Beste batzuk / Otros

Zer aldaketa egin beharko zenuke edo egin beharko litzateke zu modu aktiboan edota garraio publikoan joateko? / ¿Qué cambio debería producirse para que pasaras de un modo de transporte activo y/o público para desplazarte al campus? (OPCIONAL)

Mila esker zure laguntzagatik / Mil gracias por tu colaboración

Jasangarritasuneko Zuzendaritza
UPV/EHU, 2024ko ekaina

